

**Antonio Ballester Moreno**

**Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Jolasa eta esperientzia**



A3 aretoan, 2021eko ekainaren 25etik azaroaren 1era

**Komisarioa:** Ángel Calvo Ulloa

**Argitalpena.** Testuaren egilea Ángel Calvo Ulloa

**Solasaldia** artistarekin: ostiralean, ekainak 25, 18:00etan

**Irekiera dela-eta, ordutegi berezia:** 11:00etatik 20:00etara, etenik gabe.

Erakusketa hau Vitoria-Gasteizko Barrutia Ikastolaren eta Azpeitiko Dinamoia Sormen Gunearen lankidetzari esker egin ahal izan da.

Argibide gehiago: [www.artium.eus](http://www.artium.eus)

## **ARTIUM MUSEOAK ANTONIO BALLESTER MORENOREN *NORBERAK ERAIKITZEA. PIEZA SOLTEAK. JOLASA ETA ESPERIENTZIA* ERAKUSKETA AURKEZTU DU**

Erakusketak norberak eraikitzean eta jolasean oinarritutako pedagogiako praktika historiko batzuk berrikusi eta elkartzeko eta ikasteko espazio bat sortu du.

Carme Nogueira, Raphael Escobar eta Abraham Cruzvillegas artisten lanak ere izango dira bertan ikusgai

Artiumek, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak *Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Jolasa eta esperientzia. Antonio Ballester Moreno* (A3 aretoa, 2021eko azaroaren 1era arte) erakusketa aurkeztu du. Proiektu hau Museoak bere hiritestuinguruarekin eta testuinguru sozialarekin duen harremanari buruz eta, zehazki, bere barruko plazak inguruko elkargune gisa duen potentzialari buruz hausnartzeko prozesutik sortu da. Ballesterrek, Museoak gai honi buruz hitz egin duen artistetako batek, norberak eraikitzean eta jolasean oinarritutako pedagogiako praktika historiko batzuk berrikusi ditu, eta elkartzeko eta ikasteko espazio bat eratu du, ohiko erakusketa ez izateko pentsatutako proiektu honetan. Carme Nogueira, Raphael Escobar eta Abraham Cruzvillegas artisten lanak ere biltzen dituen erakusketa Ángel Calvo Ulloak komisariatu du, eta Azpeitiko Dinamoia Sormen Gunearen eta Vitoria-Gasteizko Barrutia Ikastolako ikasle eta irakasleen laguntzarekin egin da.

Antonio Ballester Morenoren *Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Jolasa eta esperientzia* erakusketa *Plazaraturen* esparruan abian jarritako hainbat lankidetzaren prozesuren emaitza da, hau da, Museoak erakunde gisa eta egitura arkitektoniko gisa bere ingurunearekin duen loturari eta elkargune eta gizarte-harremanen gune izateko duen gaitasunari buruzko hausnarketa-prozesuaren emaitza.

Ballester Morenok pedagogiarekin lotutako metodoak erabiltzen ditu bere praktika artistikoan; zenbait proiektutan ikasle taldeak sartzen ditu tartean hasierako ideia bati forma emateko eta noizean behin baita helduak ere. Artium Museoan egindako proposamenean, artistak XX. mendean garatutako praktika pedagogiko batzuk hartu ditu erreferentziatzat, norberak jolas gisa eraikitzean eta ekintza —eraikitzea, berreraikitzea, konpontzea, birmoldatzea— ikasteko, prestatzeko eta bizitzeko modu bihurtzean oinarrituta. Lady Allen of Hurtwood arkitekto ingelesa, Palle Nielsen ekintzaile danimarkarra, Enzo Mari arkitekto italiarra edo Simon Nicholson artista ingelesa dira esperientzia horiek inspiratzen dituzten irudietako batzuk, Ángel Calvo Ulloa komisarioak erakusketari lagun egiten dioten argitalpenean azaltzen duen bezala.

Horrela, Antonio Ballester Morenok Gasteizko Barrutia Ikastolan eta Azpeitiko Dinamoia Sormen Gunean udaberrian egindako lantegietan ekoiztutako lanak instalatu ditu museoko A3 aretoan.

Barrutia Ikastolaren kasuan, ikasleak, familiak eta irakasleak deitu zituen artistak Enzo Mariren praktikari eta haren *autoprogettazione?* eskuliburuari eta Simon Nicholsonen «pieza solteen» teoriari jarraituz altzariak eraikitzeko lantegi batean parte hartzera. Oinarritzeko pieza eta tresnak erabiliz eta berariazko plano eta jarraibideen arabera sorturik, objektu horiek —mahaiak, aulkiak, plataformak, kabinak— plaza edo haur-parke bihurtu dute A3 aretoa, museoaren kanpoaldera hiri-baratzera irekia. Zentroko 375 ikaslek parte hartu zuten lantegian.

Bestalde, erakusketan 30 metroko luzeko eta 4 metro gorako mural handi bat ere badago, Ballester Morenok Dinamoia Sormen Gunean proposatutako diseinuetatik abiatuta zuzendu zuen lantegian ekoizitako 164 serigrafia-piezak osatua.

Ballester Morenok «taldean urtzen diren proiektuetan lan egiteko» duen joera hori, komisarioak adierazten duen bezala, areagotu egiten da beste artista batzuk *Norberak eraikitzea...* proiektuan parte hartzera gonbidatuta: Carme Nogueira eta hark Buñuelen *Las Hurdes, tierra sin pan* dokumentaletik eta Extremadurako eskualde horretan 30eko hamarkadan garatutako esperientzia pedagogiko berritzailetatik abiatuta egin zituen lantegiak, Raphael Escobar eta Os Cupins das Artes, São Paulon etxerik gabeko pertsonekin egindako lantegiak, eta Abraham Cruzvillegas eta Mexiko Hiriko auzo herrikoietan errotutako autoeraikuntza prozesuak, haren praktika artistikoan suma daitezkeenak.

Ballester Morenok bakarkako erakusketak egin ditu Valladolideko Patio Herreriano Museoan, Madrilgo La Casa Encendida museoan, Mexikoko Guadalajarako MAZ museoan, Leongo MUSAC museoan, Madrilgo MaisterraValbuena galerian, Lisboako Pedro Cera galerian, Santa Monicako Christopher Grimes museoan eta Berlingo zein Los Angeleseko Peres Projects museoetan. Talde-erakusketetan ere parte hartu du, hala nola Sao Pauloko 33. biurtekoan, artista eta komisario gisa, Michigango MSU Broad Museum-en, Madrilgo CA2Men, eta New York, Berlin eta Los Angeleseko galerietan, besteak beste. Bere lana bilduma hauetan dago: Reina Sofía Arte Zentro Nazionalean, MUSACen (Leon), CA2Men, Iberdrola Bilduman eta Fundación Helga de Alvear-en.

## Solasaldia artistarekin

Ekainaren 25ean, ostirala, 18:00etan

### ***Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Jolasa eta esperientzia***-ren hurrengo bisita gidatuak

Ekainaren 27an, igandea, 17:30ean

Uztailaren 4an, igandea, 17:30ean

Uztailaren 11n, igandea, 12:30ean

Uztailaren 24an, larunbata, 12:30ean

## Artiumeko erakusketak

***Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian.*** Artium Museoa Bilduma

***Katinka Bock. Logbook.*** 2021eko irailaren 12ra arte

***Xabier Salaberria. Arkitekturarik gabekoerakusketa bat.*** 2021eko urriaren 3ra arte

***Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Jolasa eta esperientzia. Antonio Ballester Moreno.*** 2021eko azaroaren 1era arte

***Patricia Esquivias. Cardón cardinal. Z aretoa.*** 2021eko ekainaren 27ra arte

***Nadia Barkate. Testuinguruak bilduma batetik abiatuta.*** 2021eko irailaren 5era arte

***Bigarren bidea (Zeru bat, hamaika bide).*** Artium Museoa Bilduma

***Gerardo Armesto. Ikuspuntu geldiezina .*** 2021eko irailaren 5era arte

## Aurki

***Paraíso. Maddi Barber, Marina Lameiro. Z aretoa.*** 2021eko uztailaren 2tik irailaren 12ra